

Euskara, eta hogei hizkuntza gehiago

“Garenak gara”, hori da behin eta berriz Altsasuko (Nafarroa) Kima Euskara Taldeko kideek esan digutena. Eurak ahalik eta gehien egiten ari dira Altsasun euskara ezagutarazteko eta zabaltzeko, baina gutxi dira eta euren baliabideak mugatuak.

ILAZKI GAINZA

L. FERNANDEZ DE ARROYABE / ARGAZKI PRESS

ALTSASUKO EUSKARAK BIZI DUEN

egoeraz jardun aurretik, herria eta inguruak azaltzeak lekua eta bertako egoera ulertzen lagunduko digu. 1984ko urtarrilaren 31n Sakanako hainbat udal elkartu ziren, eskualdeko udal eta kontzeju guztiak bilduko zituen mankomunitatea sortzeko. Gaur egun, honako herri hauek dira Sakanako Mankomunitatea osatzen dutenak: Ziordia, Olazti, Altsasu, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku, Etxarri Aranatz, Arbizu, Lakuntza, Ergoiena, Arruazu, Uharte Arakil, Irañeta, Arakil eta Irurtzun. Sakana Nafarroako mendebaldean dagoen eskualdea da, Iruñeko merindadean. 305,5 km koadro ditu eta ia 20.000 biztanle bizi dira, horietako %37 euskaldunak –2001eko erroldako datuen arabera–.

Egoera politikoa ez da aitzakia

Euskara da Altsasuko Kima Euskara Taldeak ezagutarazi nahi duena, eurek dioten moduan “ezagutzen dena maitatzen delako”. Taldea “txikia eta saltseroa” bezala definitzen dute.

Bi helburu nagusi dituzte –www.altsasukokima.com web gunean jasoak–: lehenengoa, hizkuntzaren erabilera sustatzea; eta bigarrena, motibazio lana. Talde honek herrian bizitza euskaraz egitea eta euskara bultzatzea lortu nahi du; eta horretarako ezinbestekoa iruditzen zaie “ekintza positi-



Hiztunen artean haurrak baldin badaude euskararen erabilera %50 igotzen da Altsasun.

boak egitea, euskara ekintza positibo horiekin lotzeko eta hizkuntzaren erabilera bultzatu ahal izateko”.

Xede hauek testuinguruan kokatu behar dira, eta jakina da euskarak Nafarroan duen egoera ez dela erraza. Altsasuko Kima Euskara Taldeko kideen ustez, “egoera politikoak eragina duen arren, lanean jarraitu behar da eta euskaraz hitz egin behar da; egoera politikoa ezin da aitzakiatzat erabili”.

Hori lortu ahal izateko eta euskara herrian ezagutarazteko, hitzaldiak, lehiaketak, jokoak eta abar antolatzen dituzte. Modu interaktiboan, euskaldunek euskararekin gozatzeaz gain, euskaldun ez direnek euskara haien hizkuntzat onartzea lortu nahi dute. Gainera, euskaldun berrientzat errazagoa izango da hizkuntza barneratzea.

Ekintza horietatik deigarrienak “Toponimia Ibilbideak” dira. Altsa-

sun barna egiten dira ibilbideak eta euren helburua toponimiatiak abiatura, ingurua ezagutaraztea da. Elkar ezagutzeko baliagarriak izan zaizkielela ere aitortu digute; Altsasun euskaldunak egon badaudelako, baina horietako askok ez dute elkarren berri.

Taldeak antolatutako ekintzek herri osoa dute helburu, nahiz eta batzuk berezituagoak izan. “Batixabi kiniela”, adibidez, gazteei zuzenduta dago, eta 2006ko irailean, berriz, kanpotarrentzat hiztegiak banatu zituzten. Izan ere, kanpotarrekin lan egiten dute, jakin dezaten gaztelaniaz gain beste hizkuntza bat badagoela eta hori ezagutzeko bideak badituztela herrian bertan. Altsasuar berriek euskara baztertu ez dezaten eta euren seme-alabek euskara ezagutu dezaten lanean ari dira. Kontuan izan behar da Altsasun hogeitaz hitz egiten direla gaur egun, bertan txinatarrak, senegaldarrak, mauritaniarrak, marokoarrak, argeliarrak eta ekuatoriarrek bizi baitira, besteak beste.

Euskararen egoera

Sakanako populazioaren %37ak daki euskara, baina Altsasu kenduz gero portzentajea %46ra igotzen da. Sakanako erdiguneko herrietan euskara gehiago erabiltzen da mugako herrietan baino eta orokorrean, herri txikietan ez da handietan baino gehiago hitz egiten. Altsasu da Sakanako herririk populatuena, 5.000 biztanle baino gehiago dituen herri bakarra.

Sakanako Mankomunitateak egin dituen azterketen arabera, Altsasun euskararen ezagutza 1991n %13,5ekoa zen eta 2001ean ehunekoa %21,6ra iritsi zen. Herrian hizkuntzaren ezagutza hazi den arren, esanguratsua da Sakanako 15 udalerrietatik bi baino ez zeudela 1991n Altsasuren atzetik –Olaztik %13,1eko portzentajea zuen eta



L. FERNANDEZ DE ARROYABE / ARGAZKI PRESS

Altsasun helduak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak.

Ziordiak %11,5ekoa—. 2001eko datuen arabera, euskararen ezagutza Altsasun 1991tik hazi egin zen (%21,6). Gainerako udalerrietan, Ziordian, Olaztin eta Iturmendin izan ezik, behera egin zuen ehunekoa.

“Sakanako
populazioaren
%37ak daki euskara,
baina Altsasu
kenduz gero
portzentajea %46ra
igotzen da”

Gauza jakina da ezagutzak ez duela erabilera ziurtatzen, horregatik, datuak erkatzea ondo legoke euskararen egoeraren ikuspegi zabalagoa izateko. 2001eko kale neurketaren arabera, Sakanako euskararen kale erabilera %20,7koa da, hau da, eskualdeko herrietako kaleetan hizketan neurtutako 100 elkarrizketetatik 21 izan ziren euskaraz. Altsasun, 935 hiztun neurtu ziren eta horieta-

tik %7,5 izan zen euskaraz mintzatu zena. Aldaketa mantsoa izaten ari den arren, positiboa da, kontuan hartuz gero duela 40-45 urte euskara ia galduta zegoela, transmisiorik ez zegoela, alegia.

Adin tarteei erreparatuz gero, helduak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak, hain zuzen transmisioaz arduratu beharko liratekeenak. Bestalde, nahiko parekatua dago haur, gazte eta adinekoen erabilera.

Haurrek euskararen erabilera eragina dute. Sakanako hiztunen artean haurrik ez bada erabilera %14,9 da; presente daudenean, berriz, erabilerak ia 8 puntutan egiten du gora (%22,7). Ondorioz, haurrik ez egotetik egotera dagoen hazkundea %52,4 da.

Azken urteotan Altsasun euskaldunen kopuruak gora egin duen arren, oso gutxik ezagutzen eta hitz egiten dute bertako hizkera, berriek batua ikasten baitute. Altsasuko Kima Euskara Taldekoek zera erantzun digute etorkizuneko proiektuei buruz galdetu diegunean: “Ilusioa egingo liguke euskalkiaren inguruan lanketa bereziren bat egitea. Erakar-garri egitea lortu behar da”. ■

Babeslea: Hondarribiko Euskara Zerbitzua



2007ko apirilaren 22a